

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Makazaga Agirregabiria
Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1916-2014)

Aurkibidea



Biografia



Arkarazo auzoko Aurrekua
(Joanatzokoa Aurrekoa)
baserrian jaio zen, zazpi anai-
arreatatik gazteena. Aita
bertakoa zen, eta ama berriz
Eskoriatzako Marulanda
auzoko Ingelesena
baserrikoa. Kaleko maristen
eskolan ikasi zuen sei urtetik
hamabira arte. Eskolak
bukatu eta Mendiola auzoko
Bolinaga Garaikoan hiru urtez
morroi egon eta gero,
Bergarara ezkontutako
arreba baten etxera joan zen
morroi, San Juan auzoko Aibar
baserrira. Bertan ortu-
landareak hazten zituzten
azoketan saltzeko. Gerra hasi
zenean soldaduska egokitu
zitzaion, eta nazionalekin
batera borrokatu behar izan
zuen Espainian zehar.
Aretxabaletatik Gijoneraino
oinez joan omen ziren,
Elorriotik eta Gernikatik
pasatuz, gorrien atzetik.
Gerraostean Beroa lantegian
hasi zen lanean, sukalderako
ontzigintzan. Eskoriatzako
Mendiola auzoko Arretxena
baserriko Karmen Arriolarekin
ezkondu zen. Seme-alaba bi
izan zituzten. Joxe Mariren
alaba ere egon zen
elkarriketan.

Zintak

ARE-058

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-06-22
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com